

Ordizian, **2012ko abenduaren 20an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ/PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ/PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ/PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ/PNV taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ/PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BESTE BERTARATUTAKO BATZUK.

- CAF enpresako langileen ordezkariak etorri dira bilerara.
- Landarlan eta Naturazaintzako ordezkariak

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- CAF-eko langileak sinatu eta BILDUK aurkeztutako mozioa “Gaurko Borroka Biharko Enplegua” leloarekin.
.....**3.orr.**
- 2.- Arama eta Ordizia udalerrietako barrutietako mugak eguneratzeko dokumentua onartzea (Amondarain erreka eremua).
.....**3.orr.**
- 3.- Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal Ordenantza arautzailearen hasierako aldaketa.
.....**3.orr.**
- 4.- Ostalaritza eta Jolas instalazioak jartzeko ordenantza arautzailearen hasierako aldaketa. Kreditu eta transferentziak onartzea.
.....**3.orr.**
- 5.- NAZIOARTEKO ELKARTASUNA, Gobernu Kanpoko Erakundeari, dirulaguntza ematea ONARTZEA
.....**3.orr.**

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

- 7.- BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena Ordiziako Udalak Natruaren alde hartzeko konpromisoa adierazte duena.
- 8.- HERRIRA mugimenduak sinatutako mozioa eta BILDU taldeak aurkeztutakoa, Euskal Presoei aplikatzen zaizkien espetxe-neurri salbuespenezkoak indarrik gabe uzteko mozioa.(erderatu izenburu hau)
.....**3.orr.**

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.00ak.

AMAIERA ORDUA: 20.30ak.



Jarraian, Alkate jaunak zera argitu du:

Alkate in

Argitu nahi izan du BILDUK aurkeztu duela mozioa, BILDUKo Udal Taldeak jaso duelako, baina mozioa CAF enpresako langileak sinatzen dutela.

Bestalde baita argitu nahi izan du mozioa ez dela Osoko Bilkurako gaien batzordean diktaminatutakoa, baizik eta egokituta dagoela gertatu den egoeraren aldaketari.

Ondoren, mozio osoa irakurri du.

1.- CAF-eko langileak sinatu eta BILDUK aurkeztutako mozioa “Gaurko Borroka Biharko Enplegua” leloarekin.

Proposamena

Jakina da dagoeneko, CAFeko enpresa zuzendaritzak, Beasainen egoitza soziala kokatuta duen baino Goierri eskualde guztian, zein Gipuzkoa osoan ikaragarriko garrantzia daukan CAF enpresan Aldi Baterako Etadura Espedientea inposatzeko saiakera bertan behera utzi duela. Enpresa zuzendaritzak gainera, hasieratik enpresa batzordetik eskatzen zitzaion bezala, planteatzen zen ERE honi, alternatibak bilatzeko eta etorkizunean enpleguaren inguruan langileen ordezkariekin eseri eta akordioak bilatzeko bere konpromisoa adierazi du.

Langileon aldetik argi geratu da ERE hau ez zela beharrezkoa eta ERE honek alternatibak zituela. Langileak batasunean eramandako borrokari eskerrak lortu dugula Enpresako Zuzendaritzaren jarrera aldaketa.

Borroka gogorra izan da denontzat. Baina positibotzat baloratzen ditugu enpresak etorkizunean enplegua defendatzeari begira hartu duen erabakia eta gaur egun alternatiben inguruan hitz egiteko prestutasuna agertu izana.

Hain zuzen ere, erakutsi dugun borrokarako grinak eta akordioetara iristeko prestutasunak eraman gaitu egoera honetara. Bide horretan herritarren eta hainbat udalen zein Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik izan dugun elkertasuna eskertu nahiko genuke.

CAFeko langileok bizi izan dugun egoera, beste lantegi askotan hainbat langile pairatzen ari dira. Orokortuta dagoen krisi honen ondorioz, baino baita, erreforma laboralak eragiten dituen egoerek hausnarketa bat egitera eraman beharko gintuzke. Guk, CAFen lortu dugun akordioaren bidea, beste lantegi askotara zabaldu daitekeela iruditzen zaigu. Gure ustez inposizioa, erreforma laborala eta EREak ez dira irtenbide egokiak eta akordioaren bideak ireki behar dira langile eta enpresari eta instituzioen artean.

Horregatik udal honi eskatzen diogu gure eskualdean eman daitezkeen horrelako egoeren aurrean saiatu dadila interlokuzio lanak egiten. Inposizioaren bidea baztertu, langileekin adostasunetara iritsi eta denon artean egoera berezi hauei irtenbide egokiak emateko.

Denok osatzen dugu herria, denok Gipuzkoa eta denok Euskal Herria. Adostu ditzagun guztion artean zein izan behar duten irtenbideak.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Mozioa irakurri ondoren adierazi du bere taldea consziente dela toki erakunde bezala eragin haundirik ezin duela izan hemen hartzen den erabakiak, eta bere poza agertu du bi alderdiek (langile eta enpresak) alternatibak bilatzen saiatzeko konpromiso batera iritsi direlako, udal honi dagokion heinean apaltasunetik gutxienez bitartekaritza lan egiteko prest dagoela adierazi du, eta bukatzeko bertan dauden langileen ordekariei zorionak eman dizkie momentuz egoera zail bati aurre egitea lortu dutelako.

Santamaría jn

Lehenengo bere harridura agertu du CAFek bere momentuan ERE bat aurkeztu eta gero erretiratu duelako, ez du uste gauzak horrela egin behar direnik beste irtenbide batzuk daudenean; bestalde jarraitu du esanez bitartekari lana egiteko ez dela moziarik behar, bere alderdiak horren alde egin dutela beti eta horrela egingo dutela etorkizunean ere.

Esan du berri pozgarria dela, eta bukatu du esanez mozioaren bukaeran “denok osatzen dugu herria, denok Gipuzkoa eta deno Euskal Herria” esaten denean, baita kontuan izan behar dela enpresa handien ardura txikiekin eta hori askotan ez dela horrela izaten, eta aipatu du enpresa handiek askotan txikiekin duten jarrera, erosketa departamentutik prezioak estutzerakoan, eta abar. Bukatu du esanez bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela.

Dubreuil jn.

Mozioarekin hasi aurretik, CAFeko langileen ordekariei galdetu die ea mozio hau eskualdeko herri guztietan aurkeztu duten.

CAFeko Langileen Ordezkariek

Erantzun die Beasain, Lazkao eta Ordiziako udaletan aurkeztu dutela bakarrik CAF enpresa hiru herri hauetan kokatuta dagoelako.

Dubreuil jn.

Honen hurrean adierazi du nahiz eta inongo arazorik ez izan mozioa onartzeko, ez zaiola oso operatiboa iruditzen herri bakoitzean mozio hau aurkeztea, eta askoz zuzenago ikusiko lukeela mozio hau GOEIKIn aurkeztuko balitz.

CAFeko Langileen Ordezkariek

Justifikatu dute hiru herrietan aurkeztu izana, eta adierazi dute kontuan izango dutela Dubreuil jaunak proposatutakoa.

Alkate jn.

Adierazi du GOIEKiko presidentea denez aintzat hartzen duela Dubreuil jaunak esandakoa, eta CAFeko langileen esanetara jartzen dela horrela nahi izanez gero GOEKLra helarazteko hemen bozkatuko den mozioa edo irizten den beste edozein jestioa egiteko.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.- Arama eta Ordizia udalerrietako barrutietako mugak eguneratzeko dokumentua onartzea (Amondarain erreka eremua).

Proposamena

IKUSIRIK:

.- Arama eta Ordiziako Udalek udalerrietako barrutien arteko mugaketa-lerroak azaletik egiaztatzeari ekin diotela, eta ikusi ahal izan dela Amondarain ibaiari (Zaldibia) dagokion eremuan muga-lerroan koordinazio gabezia dagoela aurreko mendeko azkeneko hamarkadan bere ubidean egindako mozketari dagokion zatian, honakoen artean:

.- Trazatuaren errealtate fisikoa, bere lerroa trazatuaren aldaketaren aurrekoak diren plano topografikoetan islatuta geratzen da, eta planimetriari islatzen eta ezartzen diren mugarriak 1993an egindako mugarritze aktaren garaian.

.- Horretarako 1993an egindako akta, mugarritze bat eta mugarritzearen definizio grafikoaren plana sartzeko dena.

.- Eremu hartan onartu eta bideratutako plangintza eta kudeaketa tresnak

.- Mugaketa-lerroa definitua, ofizialtasun izaeraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak egina.

KONTUAN HARTUTA:

Egoera hau guztia kontuan izanda, Arama eta Ordiziako udalerriko administrazioek muga-lerroa argitu, zuzendu eta eguneratzeko asmoa dutela, eta horretarako Plan Orokorra egiten ari den Pilar Amenabar arkitektoak eginiko txostena kontuan izango dutela.

Hori dena kontuan hartuta, honako erabaki hau onartzea proposatu da:

Arama eta Ordiziako Udalek, bien arteko adostasunez, zehazten dute bi udal barrutien arteko muga-lerroa Amondarain (Zaldibia) ibaiaren jatorrizko ubideari dagokion eremuan, (aurreko mendearen azkeneko hamarkadan ubidea aldatu zuena), Ordiziako Alkarte 17 HIE eta Aramako 2 Sektoreko Birpartzelatze Proiektuan eta Plan Partzialari dagozkion hirigintza tresnetan grafiatuta eta zehaztutakoa dela.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Allkate in.

Puntu honi buruzko azapena eman du, eta garbi utzi du onartu behar den dokumentuak bi udalerrietako teknikoen aldeko oniritzia duela, eta horren arabera baita bi udalen arteko adostasuna ere.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hirugarren puntuaren berri eman du:

3.- Bide publikoak terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal ordenantza arautzailearen hasierako aldaketa.

Proposamena

Udal Plenoak 2009ko urriaren 22ko bileran onartutako bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal Ordenantza arautzailea aldatzeko espedientearen berri eman da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua dioenari jarraiki, Tokiko Erregimenaren Oinarriak erregulatzen dituena, Osoko Bilkurari dagokio Araudiak eta Ordenantzak onartzea.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2 d) artikulua xedatutakoaren arabera, udalbatzari dagokio ordenantzak onartzea

49. artikulua xedatutakoa betez, tokiko ordenantzak onartzeko eta aldatzeko, honako bide hauek jarraituko dira:

- Osoko Bilkurak hasieran aldaketa onartu.
- Jendaurrera zabaltzea eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko onartutako aldaketari.
- Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena, eta ondoren osoko bilkurak behin betiko onartzea.

Ondorioz, 2012ko abenduaren 12ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatu da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Bide publikoan terrazak eta mahaitxoak jartzeko udal Ordenantza arautzailearen 6.2 eta 15.garren artikulua aldatzeko espedientea hasieraz onartzea, honakoaren arabera:

6. Artikulua.2.atala

Esaten duen lekuan:

2. Instalazioaren luzera establezimenduen aurrealdearen bezainbestekoa izango da gehienez ere. Luzera hau handitzea onartu ahal izango da hirugarrenei kalterik sortzen ez bazaie.

Esan behar du:

2.- Terrazen instalazioaren luzetarako garapen maximoak ez du gaindituko jarduera nagusiaren establezimenduko aurrealdearen luzera, honen alboko lokal komertzial edo ez komertzialen idatzizko baimenik ezean, pasatzeko aukera etxebizitzetara eta lokal mugakideei bermatu behar delarik.

15. Artikulua.

Esaten duen lekuan:

Bide publikoan mahaitxoak kentzeko ordutegia:

Udan:

- Lan egunetan; 24,00 h.
- Jai bezperan: 01,00 h.

Urteko gainerako egunetan:

- Lan egunetan: 23:00 h.
- Jai bezperan: 01,00 h.

Esan behar du:

Bide publikoan mahaitxoak kentzeko ordutegia:

Udan:

- Lan egunetan; 24,00 h.
- Jai bezperan: 02,00 h.

Urteko gainerako egunetan:

- Lan egunetan: 23:30 h.
- Jai bezperan: 01,00 h.

2.- Arautegi hori jendaurrean jartzea 30 egunez, Udaletxeko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunek aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei tartea ematea, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik.

3.- Erreklamaziorik ez balego, Araudia behin betiko onartutzat emango da, hitzarmen berririk egiteko beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in

Adierazi du nahiz eta 3 eta 4 puntuak desberdinak izan, Osoko Bilkurako Gaien Batzordean batera tratatu zirela, soka beretik doazelako eta errelazionatuta daudelako eta horregatik egiten duen aurkezpena bientzat balio duela.

Ondoren aldaketei buruzko azalpenak eman ditu, azpimarratuz ostalaritza jarduera arautu nahi dela, batez ere aspektu haueta: mahaitxoak kanpoan nola jarri, toloak, ordutegia..., bukatzeko ostalariekin

adostutako aldaketak direla azpimarratu du, eta zentzu horretan eskerrak eman dizkio merkataritza teknikoari, Udala eta ostalarien artean egin duen bitartekari lanarengatik.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du,:

4.- Osatalaritza eta Jolak instalazioak jartzeko ordenantza arautzailearen hasierako aldaketa.

Proposamena

Udal Plenoak 1999ko ekainaren 22ko bileran eta 2012ko uztailaren 18ko bileran aldatutako Ostalaritza eta Jolas instalazioak jartzeko ordenantza arautzailea aldatzeko espedientearen berri eman da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua dioenari jarraiki, Tokiko Erregimenaren Oinarriak erregulatu dituen, Osoko Bilkurari dagokio Araudiak eta Ordenantzak onartzea.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2 d) artikulua xedatutakoaren arabera, udalbatzari dagokio ordenantzak onartzea

49. artikulua xedatutakoa betez, tokiko ordenantzak onartzeko eta aldatzeko, honako bide hauek jarraituko dira:

- Osoko Bilkurak hasieran aldaketa onartu.
- Jendaurrera zabaltzea eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko onartutako aldaketari.
- Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena, eta ondoren osoko bilkurak behin betiko onartzea.

Ondorioz, 2012ko abenduaren 12ko Osoko Bilkurarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatu da:

AKORDIO PROIEKTUA

Ostalaritza eta Jolas instalazioak jartzeko ordenantza arautzailearen 8.2 artikulua aldatzeko espedientea hasieraz onartzea, honakoaren arabera:

8. Artikulua.2.atala

Esaten duen lekuan:

2.- Aldameneko toldoak ez dira onartzen.

Esan behar du:

2.- Aldameneko toldo arinen edo holtz kengarrien instalazioa onartuko da gehinenezko altuera 1,40 metro izango delarik. (Honetarako dagokion proiektua aurkeztu beharko da eta Udalak aztertuko du, erabiliko diren material eta bestelakoak kontutan izanik)

2.- Arautegi hori jendaurrean jartzea 30 egunez, Udaletxeko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunek aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei tartea ematea, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik.

3.- Erreklamaziorik ez balego, Araudia behin betiko onartutzat emango da, hitzarmen berririk egiteko beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in.

Errepikatu du 3. puntuan eginiko azalpenak balio duela puntu hau esplikatzeko.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Kreditu eta transferentziak onartzea.

Proposamena

2012ko Aurrekontuaren exekuzioa aztertu da eta espedienteen azaltzen diren partidetako kreditua handitzeko beharra ikusi da, zehazten diren arrazoiengatik.

Aldi berean, badira partida batzuk behar adina baino kreditu gehiago dutenak.

Espedientea bi zatitan zatitu da. Bat, gastu arruntei dagokiena da, eta bestea inbertsio gastuei dagokiena. Bata zein bestea antzeko gastuen murrizketekin finantzatzen dira.

PROPOSAMENA

2012ko aurrekontuan Kreditu-transferentzien espedientea onartu, guztira 92.545,00 euro.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Insausti and.

Aurkeztutako espedienteari dagokionez, adierazi du, azpimarratu nahi duela, besteak beste, erabili gabeko 50.000,00.-€ko partida bat habilitatzen dela Oiangun inbertsioak egiteko. Oianguko partehartze prozesuari buruz adierazi du amenera fasera pasatu dela, eta diru hori partehartze prozesuan lehenetsitako proiektuak burutzeko erabiliko dela; azkenik adierazi du Oianguko partehartze prozesuari buruzko aurkezpen festa egingo dela hurrengo larunbatean, arratsaldeko 19.00etan.

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Nazioarteko Elkartasuna, Gobernu Kanpoko Erakudeari dirulaguntza ematea onartzea.

Proposamena

Ordiziako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta Programan, Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako iaguntzak, arautzen dituen araudia jarraituz, eta 2012 urteko ekitaldiari dagokionez,

Honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

NAZIOARTEKO ELKARTASUNA, Gobernu Kanpoko Erakudeari, 2.000 €ko dirulaguntza ematea ONARTZEA, Guatemalan azaroaren 7an izandako lurrikararen ondorioz gertatutako larrialdiari aurre egiteko.

NAZIOARTEKO ELKARTASUNA erakundeak, gauzatuko duen proiektua " 2012ko azaroaren 7an lurrikara Guatemalan: Ur potablearen sistemaren konponketa 243 familiientzat Panimaquip-en, San Lucas Toliman-eko munizipioan, Solóla." izango da.

2012ko azaroaren 7an gertatutako lurrikararen ondorioz, Guatemaiko 22 departamentuetatik, 10 afektatuak izan dirá. Proiektu hau zehazki, San Lucas Tollman, Solola-ko munizipioan bizi diren 243 familia Kaqchiquel indigenen, ur potablearen sistema konpontzea zuzenduko da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and.

Adierazi du Nazioarteko Elkartasuna Gobernu Kanpoko Erakudetik dirulaguntza eskaera bat aurkeztu zela, azaroan 7an izan zen lurrikara zela eta, ur-hornidura sarea konpontzeko gastuei aurre egiteko (familia kopuru handi bat ur korronterik gabe geratu zen). Jarraitu du esanez, urtero partida bat erabili gabe uzten dela ustegabeko beharrei aurre egiteko, eta eskaera hau Ongizate sailean baloratu zela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak:0

Abstentzioa: 0

Beraz Alkateak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du, hau presazko eraz aurkeztu delarik.

7.- BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena Ordiziako Udalak Naturaren alde hartzeko konpromisoa adierazte duena.

SARRERA

Naturak gure gizartearentzat duen benetako balioa aitortu eta adierazi nahi dugu, gure ongizate eta hobekuntzarako duen garrantzia aldarrikatu, kontuan hartu behar baitugu:

- Gure natur ondarea hondatzen jarraitzen dugula, eskaintzen dizkigun zerbitzuak arriskuan jartzerate. Gure baso gehienak suntsitu ditugu, ez dugu gure ibaien berreskuraketa lortu eta gure nekazal lur onenak estaltzen ari gara azken hamarkadetan.
- Ekonomian eta erabaki politikoetan, Naturak eduki behar lukeen garrantzia gutxien dugula eta, ondorioz, biodibertsitateak duen balio ekonomikoa ez dela aintzakotzat hartzen gizartearen etorkizuna arriskuan jarriz.
- Naturak, mehatxatzen gaituzten asaldurak baretzeko duen ahalmena zapuzteari utzi eta suspertzen hasi beharrean gaudela.
- Gure jarraibidea aitzindari izan behar duela gizartea naturara hurbiltzea eta sentikortasuna emendatzea nahi badugu.

Gainera, Europar Batzordeak onartu duen moduan, nahiz eta Europar Batasunak 2010. urteko muga finkatu biodibertsitatearen galerari buelta emateko, galera hori geratzerik ez du lortu ez eta berarekin datorren ekosistemen zerbitzu murrizketa ere. Ondorioz, Biodibertsitatearen Europar Estrategia finkatu du 2020.urteari begira, biodibertsitatearen galera erabat gelditzeko asmoz eta, horretarako, gureganatu behar ditugun 6 helburu nagusi xedatu ditu:

- Hegaztien eta Habitaten Arteztarauak bere osotasunean aplikatzea.
- Ekosistemak eta beraien zerbitzuak zaindu eta berreskuratzea.
- Nekazaritzak eta basogintzak biodibertsitatea zaintzeko eta hobetzeko eskaintzen duten laguntza areagotzea.
- Arrantzarako baliabideen ustiapena iraunkortzea.
- Espezie exotiko inbaditzaileen aurka burukatzea.
- Mundu guztian biodibertsitatearen galera eragozteko asmoz, EBak duen lankidetzaren emendatzea.

ZIOA:

Hau dela eta, Ordiziako Udalbatzak udal gobernuari zein ordiziar orori hurrengo eskaerak bete ditzatela eskatzen die:

- Bizitzaren oinarriko elementuak babestea: gure airea, ura, lurzorua eta biodibertsitatea, gure bizitzarako ezinbestekoak ditugun zerbitzu eta onurak eskaintzeko moduan jarrai dezaten.
- Gure naturguneak zaintzea, beraien habitaten kudeaketa emendatuz eta bizitza babesteko lerroa behar den neurrian egokituz.
- Espazio hauen arteko loturak garatzea ahal den neurrian, azpiegitura berdea sortu eta osatuz, hirigunea eta landaguneen arteko loturak indartzuz.
- Gure inguru naturalean sortarazi ditugun kalteak, ahal dugun neurrian, konpontzea.
- Basabizitzan eragiten dugun presioa gutxitzea, ingurune naturalaren kalitatea bere osotasunean hobetuz.
- Natur baliabideen zentzuzko ustiapena bultzatzea.
- Habitat eta espezieen kontserbazio egoera babesteko edo berreskuratzeko jabego publikokoak diren lursailak erabiltzea eta, esku pribatuetan dauden lursailetan ere, modu honetako ekimenak bultzatu eta suspertzea.
- Udalerri mailan espazio babestu berrien sorkuntza sustatzea eta ahaleginak egitea inguruko herrietan dituztenekin koordinatzeko: Oianguren parkea, Mariaratz.
- Natura-gune babestuak kudeatzeko dauden Patronatoetan (Aralar Natur Parkea), gogotsu kolaboratzea eta, ez dituztenen kasuetan (Amundarain, Agauntza eta Oria Garaia Babes Bereziko Gunea), eite bereko parte-hartzeko egituren sorrera bultzatzea, beraien kudeaketarako planetan ebazten diren ekimenak gauzatzearren.
- Naturaren aldeko ekintza-taldeen aldeko babesak eta elkarlana bultzatzea, bai herri mailan nahiz eskualdean.

Ilido honetatik, Udal Gobernuak legealdi honetan hurrengo ekintzak aurrera eramaten lehenetsiko ditu, Agenda 21eko 2010-2020 ekintza planean agertzen direnekin batera:

- **Ordiziako Naturguneen hobekuntza kudeaketa plana eratu eta martxan jartzea, horretarako aurrez natur elementuen eta biodibertsitatearen diagnostikoak eginez, Oianguren Parkea eta Mariaratz erreka inguruetatik hasiz.**
- **Jabego publikoko lursailetan habitatak eta espezieak berreskuratzeko ekintzak zehaztea.**
- **Hiritartze prozesuak lehendik artifizialduta dauden eremuetara mugatzea, lurzoru artifizialduaren hedapena saihestuz.**
- **"Babes bereziko hiritartze debekua duten lursailei" babes-irudi bateratu batez hornitzea, udalherri guztiko natura-gune interesgarriak bere itzalpean jarritz.**
- **Udalherriko inguru naturalen artean behar diren loturak zehaztu eta mugarriztatzea, ezarritako babes-irudi bateratuan barneratuz.**
- **Nekazal lursailen kontserbazioa bermatu, ahal den neurrian nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoak bultzatuz.**
- **Hiriko parke eta berdeguneetan bertako espezieen landaketak sustatzea.**
- **Tokiko Agenda 21en ekimen ezberdinen bidez, herritarrak biodibertsitatea ezagutu, kontserbatu eta hobetzearen alde hezi**

Era berean, konpromiso hau Goiekiri zein Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea erabakitzen dugu, eta beraiei eskatzen diegu:

- Biodibertsitatearen aldeko konpromisoa hartzea eta Goierriko udalekin esku hartzea herri mailako helburuak lortze aldera.
- Dagozkien udalen artean koordinazioa areagotzea Amundarain, Agauntza eta Oria Garaiaren GKL (KBE)-ren Kudeaketa Planak aurrera eramateko
- Aralar eta Aizkorriko GKL (KBE)-ren Kudeaketa Planak martxan jartzea bultzatzea
- Biodibertsitatearen kontserbazio eta hobekuntza helburu duen kudeaketa eredia garatzea, udalerrri hauetako mendi publikoetan diren baso landaketak baso autoktonoa bihurtze aldera.

- Murumendiko eremuaren kontserbazio eta hobekuntza bultzatu, Ordizia, Beasain eta Itsasondo udalen arteko elkarlanean
- Jadanik hasitako landare inbaditzaileak erazteko plana Goierri osora zabaltzea eta eraikuntza lanek landare inbaditzaileen zabalkundea ez areagotzeko protokoloa zehaztu eta betearazi
- Beste mendi publikoen lehengoratzeko eta hobekuntza lanen finantziazioan laguntza ematea
- 2013 urteko aurrekontuetan diru kopuru nahikoa ezar dezala, Gipuzkoako ondare naturala kontserbatu, hobetu eta zabaltzeko, Udalekin elkarlanean.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Gaia aztertu aurretik presazko izaera bozkatu da eta aho batez onartu da.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in

Adierazi du, duela hilabete batzuk Landarlan eta Naturzaindiak, Udaleko Garapen Iraunkorreko delegaritzari pasatu ziotela proposamena bat, eta denbora honetan Landarlan eta Naturazaindiak delegaritzarekin batera landutako eta adostutako testua dela gaurko Osoko Bilkurara aurkezten dena.

Bertan direnez Landarlan eta Naturazaintzako ordezkariak, Asenjo jaunak beraiei eman die hitza, konpromisoaren edukia azaltzeko.

Landarlenko eta Naturazaintzako ordezkariak

Hitza hartu duenak adierazi du proposamen hau luzatu nahi dela bai Diputazioetan eta baita ahal den neurrian Udaletan, bakoitzak bere herrian dagoen konpromisoa hartzeko. Jarraitu de esanez Ordizian ere badagoela zer babestu, aiptu ditu Oiangu parkea eta Aralarko parkea, Mariaratz.... Eta bukdatu du esanez epe luzerako konpromezua eskatzen dela natura eta biodibersidadearen alde.

Dubreuil in.

Adierazi du abstenitu egin behar dela, ez duela aztertzeko denborari izan, ikusi du puntu batzuk aurrera eramateko aurrekontuen kontsignazioa aurreikusi behar dela, eta beste puntuetan ez duela oso ondo

ikusten noraino iritsi nahi den. 2013 urteko aurrekontuetan diru kopuru nahikoa ezar dezala esaten den lekuan, iruditzen zaio gehiago konkretatu behar dela, eta hobeto aztertu behar dela. Bukatu du esanez bere aldetik gaia aztertzeko konpromezua hartzen duela, eta hemendik denbora gutxira aurkeztuko dela 2013ko aurrekontu proiektua, eta orduan aztertu beharko dela zer nolako aukera dauden neurri zehatzak hartzeko.

Santamaria jn.

Adierazi du harrিতa geratu dela mozioak arlo ekonomikoa aipatzen duelako, baina ulertzen duela betiere disonibilidadeari baldintzatuta geratzen dela. Aipatu du erakunde desberdinek arlo hau kontuan izateko beraien baldintzak jartzen dituztela, eta Udal honek betiere kontuan izan dituztela. Bestalde gogoratu ditu 2010.urtean 10 urteetarako onartutako Agenda 21 plana, eta baita momento honetan Plan Orokorra erredaktzaren ari dela, eta bietan naitanahiez ingurugiroa ere kontuan izan beharko dela. Mariraratz inguruko obrak amaitzean lehen zegoen bezala geratuko dela eta egoera onean, eta bukatu du esanez bere taldek mozioaren alde bozkatuko duela.

Alkate jn

Adierazi du argitzearren eta Santamaria jaunak esandakoarne harira, Plan Orokorra Planaren erredkazioan kontuan izaten ari direla eta kontuan izango direla ingurugiro aspektuak, eta argitzearren Dubreuil jaunak esandako kezka, nahiz eta aldeko botoa eman, gauzatzen joango direla aurrekontuek ahalbidetzen dutenaren arabera, eta aurrekontuak ematen dituen ahalmenak kontuan izanda.

Asenjo jn

EAJren aldeko botua eskertu du, eta azpimarratu du testua zehatza dela horrela izan behar duen hainbat puntutan, eta aldiz orokorra puntu filosofikoetan; bestalde azpimarratu du, agenda 21 egoteaz gain, Udal honek 2010-2020 ekintza plana ere onartuta duela, eta mozioko hainbat puntu, ekintza plan horretan jasotako hainbat puntukin kointziditzen dutela, eta ekintza horiek geratzen diren 7 urteetan burutzeko konpromezua ere nolabait hartuta dagoela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ/PNV 5,)

Kontrako botoak:0

Abstentzioa:1 (PSE-EE (PSOE) 1)

Beraz Alkateak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du, hau presazko eraz aurkeztu delarik.

8.- HERRIRA mugimenduak sinatutako mozioa eta BILDU taldeak aurkeztutakoa, Euskal Presoei aplikatzen zaizkien espetxe-neurri salbuespenezkoak indarrrik gabe uzteko mozioa.

Alkate jaunak Intsausti andreari eman dio hitza, eta honek mozioa irakurri du.

ZIOEN AZALPENA

HERRIRA mugimenduak, Giza Eskubideen Deklarazioaren edukia aintzat harturik, euskal presoei aplikatzen zaizkien espetxe-neurri salbuespenezkoak indarrrik gabe uztea eskatzen du.

Zehazki, sakabanaketa-politikari amaiera ematea eskatzen du, kartzelan dauden pertsonak eskubidea baitute zigorra etxetik hurbil betetzeko. Eskatzen du, bestetik, gaixotasun larria duten hamahiru presoak libre gelditu daitezela, eta Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia bete dadila, eta beraz, aska ditzatela zigorra bete duten 67 presoak.

Salbuespen neurri hauek sufrimendu handia eragiten dute gizartean, zuzenean neurri horiek jasaten dituztenei, baita gizarte osoari ere, apustu garbia egin baitu bakearen eta giza eskubideen errespetuaren alde. Eta sufrimendu hau buka dadin, neurri hauek desagerrarazteko, aski litzateke legeria arrunta aplikatzea.

Era berean, Ordiziako presoak, herritik ehundaka kilometrotara dauden espetxeetan sakabanatuak daude, legedi arruntaren zigor gehigarria izanik. Ondorioz, senide eta lagunek astebururo beraien bizia arriskuan jartzen dute, horren adibide, aurtan gertaturiko hamasei istripuak ditugu, presoek berrogei bat senitarteko edo adiskidek izan dute kalteren bat, larritasun maila desberdinekoak. istripu gehiagorik gerta ez dadin legedia arrunta aplikatzea nahikoa litzateke.

HERRIRAK egiaztatu du gehiengo handiak bere egiten dituela aipatutako eskaerak. Horregatik, proposamena egiten die herritarrei giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko, gutxienezkoen taula bat presoek eta erbesteratuen problemari heltzeko, modu eraikitzailean eta egiazko konponbideak bilatu nahian betiere.

Eskaera honen atzean gizartea dagoela ikusarazteko, akordio sozial zabal honen ispilu izan dadin, HERRIRA mugimenduak manifestazio handi baterako deia egin du. Mobilizazioa Bilbon izanen da, urtarrilaren 12an, goiburu honekin: "Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira".

Horregatik guztiagatik, ERABAKI hauek hartzeko eskatzen diogu Ordiziako Udalari:

1.- Espainiako Gobernuari eskatzea presoek eta haien hurbilekoen giza eskubideak errespetatzen dituen espetxe politika aplikatzeko. Neurri hauek zigorra bizilekutik hurbil betetzeko eskubidea eta osasun eskubidea bermatu behar dituzte, baita beraien zigorra bete duten presoek askatasuna eta zigorraren 3/4ak (edo 2/3ak) bete dituzten baldintzapeko askatasuna.

2.- Udalaren kezka adieraztea astebururo presoek senitarteko eta lagunek sufritzen duten arriskua dela-eta, eta elkartasuna adieraztea sakabanaketaren biktima guztiei.

3.- Aditzera ematea Udala prest dagoela herriko bizilagun presoen giza eskubideen defentsan lan egiteko, eta haien senitarteko eta hurbilekoen egoera arintzeko.

4.- Horregatik guztiagatik, udal honek bat egiten du Herrira mugimenduak deiturik urtarrilaren 12an Bilbon “Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira” goiburuekin eginen den mobilizazio orokorrarekin, eta adierazten du prest dagoela akordio sozial zabal horren alde lan egiteko.

5.- Udal honek erabaki honen berri emanen die herritarrei, eta bakearen eta giza eskubideen errespetuaren aldeko lanean inplikatu daitezten animatuko ditu udalerriko bizilagunak. Baita ere, Ordiziako udalak Bilbon burutuko den manifestaziora herritarrak joan daitezten, antolatuko den autobusean izena emateko aukera eskainiko du.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Gaia aztertu aurretik presazko izaera bozkatu da eta aho batez onartu da.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jn

Herrira plataformak aurkezten ari den mozioak bi atal ditu. Batean presoek eskubideen urratze aurrean salaketa. Eta bestean, mobilizazio esakera egiten da.

Jarraian doa, presoek eskubideen inguruan zein den gure posizioa. Behin eta berriz azaldu duguna mozio ezberdinetan. Mobilizazioen inguruan, alderdiak ez du bat egiten deialdiarekin. Beraz gure posizioa abstentzioa izango da.

Azken hamarkadetan, euskal herritarren gehiengoak, pertsona oroek giza eskubideen errespetua aldarrikatu eta eskatu du, zalantza gabe arbuatu dituelarik berauen edonolako urraketak eta elkarriketaren alde egin du gatazkak konpontzeko tresnatzat hartuz.

Euskal gizarteak demokrazia eta etika eskatzerakoan izan duen iraunkortasuna erabakiak hartzea bultzatzeko ezinbestekoa izan da, guztioi aro berri bati ekiteko aukera emateko. Indarkeriaren ondorioen aurrean, biktima eta presoek aurrean, neurri berriak ezartzeko eta oinarri demokratikoak ez besterik erabiliz, gatazka politikoa konpontzeko aukerari heltzeko denbora.

Gaur, eta alferrikako min eta sufrimendu urte guzti hauen ondoren, Ordiziako udalak ondorengo hau adostu du:

1.- ETA-k Aieteko manifestuari erantzunez, behin betiko ekintza armatua utzi izana adieraztea, aintzat hartzen dugu.

2.- Berrito diogu beharrezkoa izango dela, adiskidetzean, aitopenean, konpentsazioan eta biktima guztien laguntzan aurreratzea, sortutako mina aitortuz eta pertsonen eta gizartearen zauriak sendatzen lagunduz.

3.- Euskal presoak jasaten ari diren bere oinarrizko eskubideen urraketan aurrean, Eusko Legebiltzarrak, 2006ko urriaren 6an, euskal presoek eskubideen defentsarako konpromisoari buruz onartutako hau berresten du:

- Presoak euren gizarte eta familia-ingurunetik gertuagoko kartzelan egon behar dute.
- Espainiako espetxe erakundeei euskal preso guztien oinarrizko eskubideak errespetatu ditzala.
- Eritasun larriak jasaten dituzten presoek berehala 92. artikulua aplikatzea eskatzen da.
- Legearen aplikazio positiboa egin dezala, eta, hala, zigorraren parterik handiena bete duten eta legearen arabera baldintzapean aske egon daitezkeen presoak, askatuak izan daitezela.
- Espainiako Gobernuari, ahalik eta lasterren eskualda diezazkiola EAERI espetxeei buruzko eskumenak eskatzen zaio.
- Aldarrikatzen du giza eskubide guztiak inolako salbuespenik gabe defendatzeko konpromisoa, baita herritar guztiak, preso daudenak ere bai, eskubideez eta askatasunez, politikan parte hartzeko eskubidea barne, baliatzea bermatu beharra ere.

Dubreuil jn.

Adierazi du ez duela denborarik izan mozioa aztertzeko, atzo iritsi zitzaiela eta gainera euskera hutsean, eta horregatik abstenitu egingo dela.

Alkate jn

Aitortu du beraien eskuetara ere berandu iritsi zela mozioa, eta atzo banatu zitzaiela eta euskera hutsean beste Udal Taldeei. Bere pena azaldu du hori horrela gerta izana, zeren eta beste modu batera kudeatu balitz penrasaten du posible izango litzatekeela adostasun puntuetara iristea. Bukatu du esanez, lehen esan zuen bezala, berriro ere mahai gainean jartzen duela gai honen inguruan eta Santamaria jaunak aipatutako beste hainbat gaietan ere, bere konpromezua eztabaida mahai gaineratzeko, eta eztabaidarekin jarraitzeko. Eta bere taldeak mozioaren alde bozkatuko badu ere, aipaturiko konpromezua mahai gainean geratzea nahi duela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak:0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE) 1, EAJ/PNV 5)

Beraz Alkateak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Eskaerak eta galderak

Dubreuil jaunak, mozioak aurkezteko modua, eztabaidatzeko modua, eta abarri buruz, eta ikusirik arazo hau aspalditik ematen ari dela, adierazi du talde guztiek elkartu eta hitz egin beharko dela nola soluzionatu. Alkateak erantzun dio ados dagoela, eta hitz egin beharko dutela.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.